

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Egin nirekin



ARITZ GALARRAGA

Maistra bat, Marina Garces. Ez dakit zer pentsatuko duen hartaz Jordi Llovetek. Tira, bai, badakit urriaren 1eko epaiketari esandako batzuk gaitzetsi zizkiola, aski filosofiko ez zirela iritzita. Eta Garcesek bere nahigabea adierazi zuela. Baina agian partekatzen dute dirudiena baino gehiago –argitaletxea, Institut d'Humanitats delakoan parte hartu izan dute biek-. Gainera, harritzen nau Llovetek halako gauzeekin denbora galtzeak, letretako jendea izanik, oinezko politikaren txikieriekin. Dena delakoarekin, ez daukat problemarik, gertatzen baitzait antipodetako idazleak, etsaituta diruditenak, atsegin ahal ditudala, berdina zaizkidala jakingarri. Ez dut baldintzarik gabeko atxikimendurik: bakoitzetik behar dudana hartu, eta aitzina beti.

Garces, beraz, ateratzen duen liburu berri bakoitza da festa bat. *Escola d'aprenents* izena du azkenak, zeinak hezkuntzari buruz galdetzeraz garamatzan, nola hezi nahi dugun galdetzeak nola bizi nahi dugun galdetzea dakarrelako. Ikasle baino ikastun baikara gizaki oro, etengabe ikasten ari garenak eskola arautuan derrigor egon beharrik gabe. Zer ikas dezakegu batzuek besteongandik? Erronka litzateke norbera izan dadila gauza norbere kontura pentsatzeko, besteekin batera, garaian garai-ko arazoez. Eta, horra iristeko, irakasle benazkoak, ez “egin nik bezala” diotenak, baizik “egin nirekin”. Elkarrekin har dezagun ikasteko arriskua.

Eskola, hartara, heziketa hartzen duen gune nagusi gisara, ez da soilik goiz jaikitzen edo sari baten truke edozer gauza egiten ikasteko leku bat, ezpada irakasleen eta ikasleen arteko elkar-kerketatik sortzen dena ikasteko, gizarte bezala, bere osotasunean, jakintza inguruko eztabaida gure gain hartzeko. Noski, gauza guztien soluzio izan gabe. Baina gaur inoiz baino gehiago babes-leku, gorputz-arimaren. Haurrak ez baititugu eskolatzen maita gaitzaten. Ahalik eta bizimodurik beteena izan dezaten baizik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“PREFETAK HISTORIA ERREPIKATU NAHI BADU, MOBILIZATU EGINGO GARA”

ELB, IPAR EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN SINDIKATUA

Hegazti gripearen aurrean, ahate etxaldeak defendatzeko protestak antolatu dituzte langileek. 2017ko gripea gogoan, historia errepikatu nahi badu mobilizatu egingo direla esan dio ELBk prefetari –2017an, nekazariak aurre egin zieten jendarmeei–. “Soilik sano diren hegaztiak hiltzen ez badituzte ekidin ahal izanen da konfrontazio irudia”. Behar izanez gero “bataila antolatzeko” deia egin du ELBk, “unea iristen denean behar bezala erantzungo duen sare bat prest izateko”. **2021/02/01**

